

## ELKARTEAREN HELBURUAK

**Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioaren funtsezko helburua da Kide Ugariko Familiak babestea eta defendatzea, bai eta gizarte-zerbitzuak ematea ere, zehazki honela:**

- a) Jarduerak koordinatzea, indarrean dagoen legeriak ezarritako betebeharrak eta Elkarten Estatutuak betetzen direla ziurtatuta.
- b) Saiakera egitea Elkarte kide bakoitzak ahalik eta gehien gara ditzan bere estatutuetan aurreikusitako xedeak.
- c) Elkarte Federatuen ordezkaria izatea erkidego-, estatu- zein Europa-mailan, Herri Administrazioekin nahiz horiekin loturiko funtzioak edo prestazioak betetzen dituzten erakunde publiko edo pribatuekin dituzten harremanetan.
- d) Harremanak izatea edota kide izatea oro har familiarekin era bereziki Kide Ugariko Familiekin lotutako estatuko eta nazioarteko Erakundeetan.
- e) Beharrezko legezko aldaketak aldarrikatzea, lurralde-esparru guztietan, Familiari buruzko indarreko araudia eguneratzeko eta jasotzen dituen laguntzak, onurak edo prestazioak betetzen direla bermatzeko.
- f) Familiaren babesa sustatzea, hitzaldiak, prestakuntza-zikloak edo bestelako ekitaldi publikoak antolatuz, bai eta aldizkariak, monografikoak eta dibulgaziozko liburuxkak argitaratuz ere.
- g) Adierazitako helburuak betetzera bideraturiko ekimenak sustatzea edo horietan parte hartzea, bai eta egoera okerragoan dauden familien arretan edo izaera familiarreko beste edozeinetan ere, orokorrak izan arren.
- h) Espresuki dago helburuetatik at jardueren kudeaketatik inolako irabazirik erdiestea.
- i) Aurreko helburuekin zuzenean edo zeharka loturiko beste edozein jarduera.
- j) Genero-ikuspegiari gure jarduera eta proiektu guztietan eustea, bai eta gure hedabideetan ere, hizkuntza ez-sexista erabilia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuta.

## MISIOA ETA IKUSPEGIA

Hirukideren helburu nagusia da jendarte zibilak barneratzea familiak, oro har, eta kide ugariko familiak, bereziki, **balioetsi** eta **babestu** beharreko ondare unibertsala direla. Seme-alabak dituzten familiekiko **gizarte inklusiboagoa** lortu nahi du, haien eginkizuna bete ahal izatea ahalbidetuko duena. Hirukidek **Justizia** eta **Aitortza** aldarrikatzen ditu, seme-alabak izateak jendartearen aurrerapenari egiten dion ekarpena behar bezala har dadin aintzat.

- Kide ugariko familien kolektiboaren eskubideak babestea politika-, erakunde-, gizarte-, komunikabide- eta enpresa-mailan zein bizitzako arlo guztietan.
- Hiru seme-alaba edo gehiagoko familiei edo egoera desberdinetan dauden bi seme-alabako familiei informazio- eta aholkularitza-zerbitzu iraunkorra eskaintzea.
- Jendartea sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak garatzea.
- Seme-alabak dituzten familien beharrezanekiko sentiberatasun handiagoa sustatzea erakunde eta administrazioen artean, haiekin elkarlanean arituta..

## BALIOAK

- Elkartasuna
- Zintzotasuna
- Begirunea
- Berdintasuna
- Askatasuna
- Ahalegina
- Erantzukizuna Erantzukidetasuna
- Sentsibilitatea
- Itxaropena